

TXIROTUTAKO BESTE HERRIALDEEKIKO LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO HEZKUNTZA PROGRAMEI DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK.

Hernaniko Udalaren Lankidetza Arloak misiotzat du, herritar eta erakundeen konpromisotik abiatuta, gizarte zuzen eta berdinago baten alde egitea, tokian tokiko ekimenetik hasi eta garapen globalera iritsiz.

Abiapuntua hau dela, Hernaniko Udalak bi eginbide nagusi garatuko ditu:

- 1.- **Nazioarteko lankidetza eskaini txirotutako herrien garapenari**, eta babesa, desberdintasunak gainditzeko lanean genero-ikuspuntutik diharduten kolektibo eta erakundeei.
- 2.- **Garapenerako sentsibilizazioa eta hezkuntza**, gogoeta egiteko, formazioa sustatzeko eta hernaniarren gaitasun indibidual eta kolektiboak indartzeko baliabide gisa.

Aurrekontua

Hartara, Udalak 332.750 euroko kopurua ezartzen du aurreko artikuluan deskribatutako proiektuak diruz laguntzeko.

Oinarri-arauak

Oinarri-arauok eta dirulaguntza ematean indarrean dauden gainerako arauak arautuko dute dirulaguntza hauek ematea eta Udalaren eta onuradunen arteko harreman juridikoa.

Oinarri-arauotan agertzen ez den guztian Hernaniko Udalean dirulaguntzak ematea arautzen duen udal araudia aplikatuko da eta baita gai honen inguruan indarrean dauden gainerako arauak ere. Oinarri hauek dirulaguntza emateko udal araudiaren 7. artikuluan ezartzen denaren arabera finkatu dira. Udal-arau hau 2004ko abenduaren 22an onartu zuen Udalbatzak eta 2005ko abenduaren 21eko Udalbatzak egokitu egin zuen.

Eskabideak

Udaletxeko Herritarren Harrera Zerbitzuan jendaurreko orduetan entregatuko dira behar bezala betetako eskabide inprimakiak eta eskatutako agiriak, iragarkia GAOn argitaratzen denetik 20 egun naturaleko epean, honako ordutegian: astelehen, asteazken eta ostiraletan 8:00etatik 14:00etara, eta astearte eta ostegunetan 8:00etatik 18:30era.

Eskaera ofizial elebiduna edo euskara hutsezkoa erabiliko da. Udalak gonbidatzen zaitu euskara hutsezkoa erabiltzera. Dokumentazioa paperean eta euskarri digitalean aurkeztu behar da.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo akatsak dituela ikusten bada, dagokionari abisatuko zaio aldaketak egiteko aukera izan dezan, eta abisua eman eta hamar laneguneko epea izango du interesatuak zuzenketak egiteko.

Garapenerako lankidetza proiektuentzako dirulaguntzak

1. Xedea

- 1.1. Honako deialdi honek konkurrentzia librean dirulaguntzak plazaratzea bilatzen du, zeharbidez

genero-ekitatea komunitate eta kolektiboen sendotzea eta eskubide indibidual eta kolektiboen defentsa sustatzen duten garapenerako lankidetzak proiektuak gauzatu ahal izateko.

1.2. Txirrotutako herrialdeetako herritar txirrotuenen garapen politiko, sozial eta ekonomikoa bideratzen duten prozesu eta proiektuak sustatuko dira.

1.3. Dirulaguntza hauek helburu duten prozesu eta proiektuek, nagusiki, honako ekimen hauen garapena izango dute jardunbide:

- a) Sektore baztertuenen behar oinarritzak.
- b) Emakumeen ahaldundzea beren garapen pertsonal eta sozialean.
- c) Biztanleria subjektuaren partaidetza garapen prozesu osoan.
- d) Oro har giza eskubideen defentsa, eta zehazki pertsona, kolektibo eta herrien eskubide zibil, politiko eta territorialen defentsa egitea genero-ikuspuntutik, prebentzio lana eginda komunitateen zaugarritasuna gutxiagotzearen, gatazkarik izanez gero.
- e) Komunitatearen sendotzea, tokian tokiko garapen eta kudeaketarako gaitasunak sorraraziz.
- f) Haur eta gazteen hezkuntza.
- g) Oinarritako osasuna, sexu eta ugalketari buruzkoa.
- h) Bidezko merkataritzaren sustapena.
- i) Sarean lan egitea.
- j) Elikadura subiranotasuna.

Dirulaguntza hauetan ez dira sartzen sentsibilizazioa areagotzeko eta garapenerako hezkuntzari lotutakoak; horiek kontsiderazio berezia izango dute deialdi honetan.

2. Deialdiaren lehentasunak

Hiru zehar-lerro hautako bat edo gehiago biltzen dituzten proiektuak lehentasunezkoak izan daitezke. Hauek dira hiru zehar-lerroak:

- a) Emakumeen baldintzak eta egoerak hobetzen laguntzea.
- b) Komunitatea eta haren elkarte sarea sendotzea.
- c) Eskubide indibidual eta kolektiboen alde egitea.

Era berean, elikadura subiranotasuna, ingurugiroaren defentsa eta gatazken irtenbidea sustatzen duten proiektuak indartuko dira eta erakunde eskatzailearen kide izan edo ez izan, hernaniarren borondatezko partaidetza aktiboa dakarten proiektuek, dela kudeaketan, dela tokian bertan, dela aholkularitzan, dela laguntza teknikoan; eta baita garapen bidean laguntzen zaien komunitate edo taldeen eta Hernaniko jendartearen arteko trukea eta harremana izatea aurreikusten duten proiektuek ere.

3. Bete beharrekoak

3.1. Erakunde eskatzaileak

3.1.1. Deialdi honek plazaratutako dirulaguntzak eskuratu ahal izateko, erakundeek honako baldintzak aldeztuz bete beharko dituzte:

- a) Irabazteko asmorik gabeko erakunde izatea.
- b) Garapenerako lankidetzak eta herrien arteko elkartzak helburuen artean edukitzea, eta burutzen dituzten ekintzak bat etortzea deialdi honen zioarekin.
- c) Hernaniko Udal Lankidetzak Arloak ateratako aurreko dirulaguntza deialdian dirulaguntza jasoa izanez gero, Hernaniko Udalarekin hartutako konpromisoak bete izatea.
- d) Egoitza Euskal Autonomi Erkidegoan izatea eta Gipuzkoan ordezkari bat edo gehiago izatea.

3.1.2. Berariaz deialdi honetatik kanpo geratzen dira:

- a) Lankidetzako Gobernu Erakundeak.
- b) EAEko Elkarteak Erregistroan edo Fundazioen Erregistroan izena emanda ez dauden erakundeak.
- c) Enpresak edo irabazi asmoa duen beste edozein erakunde.
- d) Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusten duen egoeraren batean dauden erakundeak, besteak beste sexu bazterkeriazko egitatearen bat egiteagatik zigor administratibo nahiz penala jaso izan dutenak.

3.2. Proiektuak

Eskabidea egindako proiektuek honako hauek bete beharko dituzte:

- a) Genero-ekitate, komunitatearen sendotzea eta eskubide indibidual eta kolektiboak aintzat hartzea eta praktikara eramatea.
- b) Kultura inposaketa ekiditea, jasotzen duen komunitatearen idiosinkrasia eta ingurumena errespetatuz.
- c) Oinarri berezi hauetako 2. puntuan adierazitako ekintzak doitu eta sustatuko dira.
- d) Proiektu zehatzak izatea, komunitatearen edo kolektiboaren garapenean genero-ikuspuntutik eragin praktikoa izango dutenak.
- e) Eskaintako formularioaren arabera beharrezkoak, helburuak, emaitzak, aktibitateak, haietarako baliabideak, bideragarritasuna eta abar koherentziaz azaldu eta informatzea.
- f) Proiektuak, prozesu baten partaide izan behar baitu, argi zehaztu behar du etorkizunera begirako iraunkortasuna.
- g) Onuradunen datuak sexuka taldekatuta eskaini behar dira, hizkuntza modu sexistan ez erabiltzea eta erabiltzen diren irudietan emakumeak eta gizonak modu orekatuan eta ez-estereotipatuan agertzea zainduta.

h) Dirulaguntza eskatzen duen proiektuarekiko ezagutza eta ahalmen nahikoa duela egiaztatu beharko du erakunde eskatzaileak.

i) Bestaldeko kideak nortasun juridiko propioa izango du eta biztanleria subjektuaren partaidetzaz informazio nahikoa eskainiko du.

4.- Eskabideak

Dirulaguntza eskatzeko eskari ofizialak erabiliko dira, behar bezala beteak eta sinatuak. Udalak gonbidatzen zaitu euskara hutsezkoa erabiltzera. Udalarekiko harremanetan euskara erabiliko da lehentasunez, ahoz eta idatziz.

Dirulaguntza hauek eskuratu nahi dituzten erakundeek, **eskaera orriarekin** eta erakundearen arduradun edo ordezkari den pertsonaren **NAren fotokopiarekin** batera, honako informazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Dirulaguntza lortu nahi den **proiektuaren**, jardueraren edo programaren dokumentu originala. Proiektuarekin lotutako datuak eskaera orriko 3. atalean jasoko dira, hor proiektuaren inguruan eman beharreko gutxieneko datuak baitaude.

b) Proiektuaren **gastuen** (zenbatekoen azalpena) **eta diru-sarreraren** (zenbatekoen jatorria) **aurrekontua**. Proiektuarekin lotutako datuak eskaera orriko 5. atalean jasoko dira, hor proiektuaren inguruan eman beharreko gutxieneko datuak baitaude.

Aurrekontua eurotan zehaztuta aurkeztuko da, eta hor adieraziko dira udalaren nahiz norberaren baliabideak, eskatutako edo/eta emandako dirulaguntzak, kanbio tasen balioak, etab. Agiri bakoitzean, ale kopurua eta aleko prezioa adieraziko da. 2.000 euro baino gehiagoko ondasun eta ekipoa erosteko, enpresa hornitzailearen proforma faktura edo aurrekontua aurkeztu beharko da.

c) Beste sail, erakunde, organismo, eta abarretan aurkeztutako **dirulaguntzen eskakizunak** azaltzen dituen adierazpena edo, hala dagokionean, emandako diru laguntzena (eskaera orriko 4. atala).

d) **Banketxearen inguruko datuak** jasotzen dituen (eskaera orriko 2. atala)

e) Proiektu edo jardueran nola aurreikusten den **emakumezko eta gizonezkoen berdintasunaren** ikuspuntuaren trataera, eta erakundea sexu-diskriminazioarengatik zigorrik betetzen ari ez delako adierazpena (eskaera orriko 6. atala).

f) **Zerga-betebeharrak** (foru-ogasuna) **eta gizarte-segurantzarekikoak eta BEZ araudikoak** egunean dituztela dioen adierazpena. (eskaera orriko 4. atala)

g) **Bestaldeko kideari buruzko informazioa**, komunitateko edo garapenerako programetan duen eskarmentua ere dokumentatzen dela.

h) **Proiektuak erakunde eskatzaileari zein bestaldeko kideari dakartzkien eskubide eta betebeharrak biltzen dituen agiria**, non berariaz agertuko baita proiektuaren karietara sortutako ondasun higiezin eta higikor guztiak herritar subjektuaren edo beren erakunde ordezkarien esku geratuko direla.

5.- Balorazio irizpideak

Proiektuak zuzen baloratzearen, beraietan azaldutako oro egiaztatzen duten datu guztiak aurkeztuko dira.

Erakunderen batek bere kasuan itemen bat ez dela baloratu behar uste badu justifikatu egin beharko du.

Gehienezko puntuazioa 175 puntukoa da.

Dirulaguntza jaso ahal izateko denera gutxienez 80 puntu lortu behar da eta atal bakoitzean (Erakundeak/Ardatz politiko, sozial eta kulturala/Proiektuaren kalitate tekniko/Ebaluazioa eta sistematizazioa) hirutatik bat gutxienez lortzen duten proiektuek bakarrik jaso dezakete dirulaguntza.

Banatzeko den dirua denetara lortutako puntuaketaren arabera banatuko da, punturik gehien lortu duen erakundetik hasi eta banatzeko den dirua erabat bukatu arte.

1.- ERAKUNDEAK (27 puntu)

1.1. ERAKUNDE ESKATZAILEA

- Erakunde eskatzaileak badu proiektua kudeatzeko nahikoa eskarmentu eta gaitasun tekniko. 5.-
- Erakunde eskatzaileak barneratuta dauka genero-ikuspegia bere barne- eta kanpo-lanean eta bere egituran. 5.-

1.2. BESTALDEKO ERAKUNDEA

- Bestaldeko kideak ekinaren ekinez egindako ibilbidea badu, bai eta proiektua burutuko den eskualde eta populazioaren ezagutza ere. 4.-
- Bestaldeko kideak txertatuta dauka genero ikuspegia bai barruko eta kanpoko lanetan eta baita bere egituran ere. 3.-
- Erakunde eskatzailea eta bestaldekoa lankidetzan aritutakoak dira. 3.-

1.3. PARTAIDETZA

- Proiektuan bestaldeko erakunde ordezkatzailerik eta demokratiko batek parte hartzen du, edo babesten du. 2.-
- Onuradunek parte hartzen dute proiektuaren proposamen, burutzapen eta kudeaketan. 5.-

2. ARDATZ POLITIKO, SOZIAL ETA KULTURALA (61 puntu)

2.1. KOMUNITATEAREN SENDOTZEA

- Herri hartzaileko emakume eta gizonek benetan parte hartzeko prozesu eta guneak sor daitezela laguntzen du proiektuak. 5.-
- Elkartzeko egiturak indartzen eta sareak sortzen laguntzen du proiektuak. 4.-
- Proiektuaren egitekoaren bultzatzaile zuzenak bertako kolektiboak dira, hala nola kooperatibak, oinarritzko organizazioak, komunitatekoak, garapen-batzordeak eta abar. 5.-
- Proiektuak Hernaniko eta Hegoaldeko kolektiboen arteko esperientzia, pertsona eta baliabideen elkar ezagutza eta elkartrukeak sustatzen edo indartzen ditu 4.-
- Proiektuak onuradunak formatzeko ekintzak jasotzen ditu, komunitateko eta antolakuntzako gaitasunak indartu nahian betiere. 4.-

- Proiektuan parte hartutakoen arteko jakintzen, ezagutzen eta esperientzien elkartrukea sustatzen da, Garapenerako Hezkuntza bideratzeko asmoz. 2.-
- Proiektuan gauzatu beharreko metodoak erabakitzerakoan emakume eta gizon hartzaileen ezaugarriak kontuan hartzen dira. 4.-
- Azterketak eta hausnarketak egiteko eta erabakiak hartzeko partaideek darabiltzaten erritmo eta dinamikak errespetatzen ditu proiektuak. 1.-

2.2 GENEROA

- Emakumeak protagonista dira, garapenaren politiko, sozial eta ekonomikorako sujetu gisa. 5.-
- Emakumeen partaidetza arlo komunitario eta publikoan sustatzen du proiektuak. 5.-
- Generoarekiko kontzientzia areagotzea ahalbidetuko duten ekintzak egitea ere sartzen da proiektuan. 5.-

2.3 GIZA ESKUBIDEAK

- Giza eskubideen eta, bereziki, emakumeen eskubideen defentsa eta sendotzea sustatzen du proiektuak. 5.-
- Tokian tokiko kultura, hizkuntzak, jarduera eta tradizioen ezagutza eta errespetua sustatzen ditu proiektuak, giza eskubideen eta genero-ekitatearen errespetuz betiere. 4.-
- Proiektuak elikadura subiranotasuna lortzen laguntzen du. 5.-
- Proiektuak gatazken irtenbidea bultzatzen dituen ekintzak aurreikusten ditu. 3.-

3. PROIEKTUAREN KALITATE TEKNIKOA. 79 puntu

3.1. PROIEKTUA

- Proiektuak informazio aproposa eskaintzen du dagozkion testuinguru eta errealitatei erantzuteko eta bere eginbeharra eta egokitasuna justifikatzen ditu. 5.-
- Proiektua identifikatu eta formulatu den erari buruzko informazioa eskaintzen da. 3.-
- Proiektuaren aurreko diagnostiko bat egin da. 3.-
- Populazio subjektuaren baitako emakume eta gizonen artean ezaugarri bereziak dituzten taldeak definitzen dira. 4.-
- Proiektuaren helburuak, adierazleak eta espero diren emaitzak zehatz-mehatz definitzen dira. 4.-
- Espero diren emaitzek aurreikusten dute emakumeen eta gizonen partaidetza ekitatiboa proiektuaren onuretan. 4.-
- Emaitzetan aurreikusten dira emakume eta gizonengan izan ditzaketen zeharkako ondorio baikor edota ezkorrak. 3.-
- Ekimenaren justifikazioaren, planteatutako helburuen, proposatutako aktibitateen eta espero diren emaitzen artean koherentzia badago. 4.-
- Erakunde eskatzaileak eta bestaldeko kideak prestatu eta bere burutzapenez harago doan estrategia zabalago baten baitan kokatua dago proiektua. 5.-
- Proiektuan lantzen diren zeharbideak koherenteak dira deialdian lehentasunezkoztat jotakoekin. 5.-

- Proiektuaren onura jasoko duten kolektiboak koherenteak dira deialdiak halakotzat jotzen dituenekin. 4.-
- Proiektuan lehentasunekotzat jotako lan-esparruak koherenteak dira deialdian halakotzat jotakoekin. 5.-
- Proiektuak badauka nahikoa informazio arazo teknikoez (bideragarritasun teknikoa) 4.-
- Proiektuak bideragarritasun finantzario osoa bermatzen du, ez soilki dirulaguntza eskatzen duenarena. 4.-
- Proiektuak eragin ekologiko positiboa lortzearen alde egiten du. 3.-
- Proiektuak etorkizuneko iraunkortasuna bermatzen du, behin kanpoko laguntza bukatu eta gero. 5.-
- Eskakizunak beharrezko baldintzak eta dokumentazioa betetzen ditu, ezer zuzendu beharrik gabe. 1.-

3.2. AURREKONTUA

- Aurrekontua xehe-xehe ematen da, eta aurkeztutako aktibitateen arabera egokiturik. 6.-
- Harreman egokia dago aktibitateen, baliabideen, kostuen eta onuradunen kopuruaren artean. 4.-
- Aurreikusitako baliabideak eskuragarri dituzte emakumeek eta helburu den taldeko gizonak. 3.-

4. EBALUAZIOA ETA SISTEMATIZAZIOA (8 puntu)

- Proiektuaren ebaluazio edo sistematizazio bat aurreikusia dago. 3.-
- Proiektuak deskribatzen du nolako jarraipena egingo dioten bestaldeko kideak eta erakunde eskatzaileak. 4.-
- Adierazle zehatz, objektibo eta fidagarriek ahalbidetzen dute deskribapen eta emaitzen neurketa hutsetik harago joaten, proiektuaren prozesu bitartean gertatutakoaren azterketa eta interpretazioa erraztuz. 1.-

Azaldutako irizpideez gain, Lankidetzaz Arloak erakundearen ibilbidea alderatu ahal izango du, bai eta Euskal Fondoarekin GGKEen Koordinakundearekin eta beste zenbait erakunderekin kontsultatu eta, behar izanez gero, erakunde eskatzailearekin elkarriketa bat egin ere.

6. Proiektuaren balorazioa

Aurkeztutako eskaerak Hernaniko Kooperazio Taldeak aztertuko ditu. Ondoren dagokion Informazio Batzordean aztertuko da gaia eta emakida-proposamena jakinarazi eta gero, Tokiko Gobernu Batzarrek hartuko du emakida-erabakia.

7. Ebazpena

Ebazpenak egin eta argitaratu edo jakinarazteko gehienezko epea 6 hilabete da. Dirulaguntza emateko erabakiaren berri eskatzaileei emango zaie.

Emandako dirulaguntzak Hernaniko Udalaren iragarki-taulan eta web orrian argitaratuko dira, eta ebazpenaren laburpen bat argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

8. Dirulaguntzaren zenbatekoa

8.1. Oinarri hauetako 4 a) artikulua dioen moduan, erakunde eskatzaileek zehaztu beharko dute deialdira aurkeztutako proiektu berarentzako dirulaguntzarik jaso den edota eskatu den beste

Administrazio edo Erakunde publiko zein pribatutan (eskaera orriko 4. atala).

8.2 Dirulaguntza ez da, inola ere, proiektua kostatzen denaren %80 baino handiagoa izango. Kontratu bidezko beste partearen ekarri balioztatuak, halakorik baldin bada, zehatz azalduta egongo dira.

8.3 Emandako kopurua eskatutakoaren %100 izango da. Dena dela, eskatutakoak ez dauka proiektua kostatzen denaren %80 baino handiagoa izaterik, eta ezta 8.5 puntuan jarritako kopururik pasatzerik ere.

8.4. Dirulaguntza jaso duen proiektuaren ondorioz sortutako diru sarrerak proiektuan bertan erabili beharko dira.

8.5 Erakunde bakoitzari gehienez garapenerako proiektu batentzako laguntza emango zaio, eta gehienez jota 50.000 eurokoa.

9. Diruz lagun daitezkeen gastuak

Dirulaguntzaren gain aurrekontuan sar daitezkeen gastu motak honako hauek dira:

a) Ekipo eta material, hornigai eta aktibo ekoizleen erosketa; bestaldeko pertsonalaren eta jardunbideko gastuak; gaitasuna eta formazioa. Dirulaguntza lurrak edo ondasun higiezinak erosteko erabiltzea salbuespena izango da, eta, nolanahi ere den, fede emanda egiaztatu beharko dute jabetza erakunde komunitario batena dela. Gauza batzuk atzeritik garraiatzeko gastuak ezinbestekoak izatea eta proiektua egiten ari den herrialdetik kanpora erosi beharra ere justifikatu beharreko kontuak dira.

b) Zeharkako gastuak: zeharkako kostu edo funtzionamendu-kostuetarako, gehienez ere gastu zuzenen %8 baliatu ahal izango da.

Zeintzuk dira zeharkako gastuak?:

Proiektuaren identifikazioarekin, formulazioarekin, jarraipenarekin eta ebaluazioarekin lotutako administrazio, kudeaketa eta langile-gastuak GGKE eskatzailearen egoitzan.

Kostu horiek ez dira agiri bidez justifikatu beharko, baina dirulaguntza justifikatzeko memoriaren barruko proiektu/jardueraren sarrera eta gastuen balantzean adierazi beharko dira.

10. Dirulaguntzaren ordainketa

Dagokion organoak dirulaguntza ematea onartutakoan ordainduko zaie erakundeei onartu zaien dirulaguntzaren %50.

Bigarren ordainketa (%45) onartutako laguntzaren lehen ordainketaren zenbatekoaren %50 burutu dela justifikatzen denean. Azken ordainketa (%5) berriz, zuriketak azken txostena aurkeztean egingo da.

Ordainketa bakoitza egiteko, udalak bere esku izan beharko du zerga-betebeharren (foru-ogasuna) eta gizarte-segurantzaren ordainketak egunean izatearen ziurtagiria.

11. Justifikazioa eta burutzea

11.1. Dirulaguntzaren justifikazio partziala **bitarteko txosten** narratibo eta ekonomikoa (balantze ekonomiko sinatuarekin eta erakundearen ziguilarekin) aurkeztuz egingo da. Ordaindu berriz horri

dagokion balorazio teknikoa egindakoan egingo da. Hasierako ordainketatik, gehienez 12 hilabeteren buruan aurkeztu beharko da.

11.2. Proiektua amaitu ondoren, emandako dirulaguntzaren gainerako kopurua **azken txosten** narratibo eta ekonomiko baten bidez justifikatu beharko da, bertan proiektuaren balantze ekonomiko totala sinadurarekin eta erakundearen zigiluarekin aurkeztu beharko da. Hasierako ordainketatik gehienez 18 hilabetetara aurkeztuko da azken txostena.

Dokumentazio hau gaineratu behar da:

1.- Dirulaguntzaren xede den jarduerari lotuta egin diren azterlan, programa, argitalpen, kartel eta gainerako dokumentu grafiko eta idatzien ale bana.

2.- Genero ikuspegia benetan zenbateraino txertatu den adierazteko fitxa beteta (zuriketarako orriko 3. atala).

11.3. Bi txostenek (bitartekoak eta amaierakoak), zuriketarako orriko 2. atalean (jarraipen txostena) eta 5. atalean (gastua zuritzekoa) eskaturiko informazioa behintzat eman behar dute.

11.4. Justifikazio modura, zuriketarako orriko 2. atala erabiltzeaz gain, ordaindutako fakturen kopia eta fakturen zerrenda (zuriketa orriko 6. atala) ere aurkeztu beharko da, eskaeran aurkeztutako aurrekontuan azaldutako kontzeptuetan multzokatuta, honako datu hauek dakartzatela: faktura zenbakia, fakturaren data, ordainketa data, zenbateko garbia eta BEZa eta igorlearen IFK, erakundeko Idazkaritzaren arduradunaren sinadurarekin eta erakundearen zigiluarekin.

11.5. Hernaniko Udal Lankidetzak Arloaren esku geratzen da proiektuaren burutzapenaren ebaluazio zehatzagoa egitea. Egitekotan, zuzenean egin daiteke **ebaluazio hau, edo hartarako gaitasuna duten pertsonen** bitartez; dirulaguntza jasotako erakundeak ekimena burutzen den tokirako irispidea errazteko eta informazioa eta finantza-agiriak helarazteko konpromisoa dauka.

11.6. Dirulaguntza jaso duen entitateak aurreko artikuluetan zehazten diren betebeharrak betetzen ez baditu, Hernaniko Udalak emandako diru-kopurua murriztu edo emandako dirulaguntza oso-osorik edota zati bat itzultzeko eskatu ahal izango dio dirulaguntza jaso duen elkarte horri. Hori gertatuko balitz, dirulaguntza jaso duen erakundeak dagokion kopurua itzuli beharko du udal erabakiaren jakinarazpena egin eta hamabost eguneko epean. Itzuli beharreko kopuruak ezarritako epean egiten ez badira, premiamendu bidez eska daitezke.

11.7. Ekimena burutzerakoan aldaketa esanguratsuak aurrera eraman ahal izateko, dirulaguntza jasotako erakundeak Udal Lankidetzak Arloaren berariazko baimena bereganatu beharko du. Honako hauek joko dira aldaketa esanguratsutzat: helburuak, biztanleria subjektua edo kontu-sailen baten aurrekontua %10 edo 500€-ko kopurutik gora aldatzea.

12. Aurrekontua

Udalak atal honetan deskribaturiko proiektuak diruz laguntzeko 232.925 euro izendatu ditu.

Atal honetako dirulaguntzak emateko proposamena egin ondoren soberakinik egongo dela aurreikusiz gero, sentsibilizazio eta garapenerako hezkuntza proiektuentzako diru laguntzetarako xedaturiko zenbatekoa gehitzeko erabiliko da.